

2015-01-16 OSTIRALA
1. ZENBAKIA
ARABAKOALEA.INFO

URTEA, ATZERA ETA AURRERA

Hauteskundeeek eta lan gatazkek markatuko dute 2015a Araban

"Ozen esan behar dugu diskriminazioa delitu dela"


Borja Pascual, Gao Lacho Drom ijito elkarte

"Ikus-entzunetan, analfabetoak gara"

Joseba Elorza, ilustratzailea



ALEA
arabako aldizkaria



50urtean

Harpidetu zaitez

KALEAN

 **ALEA**

ARABAKO ALDIZKARIA

www.arabakoalea.info

Eskaintza bereziak oru ekaritako nazionalitatearen harpidetza bidez, orduen eta proiektuaren



Alea

1 zk.

Azaleko argazkia:
Saioa Fernández
de Aránguiz



- 4 Araba 2015
- 8 Borja Pascual: "Sentsibilizazioaz harago, justizia behar da"
- 12 Iritzia: Irati Iciar, Iñaki Larrañaga, Itsasegia

ARABAKO KUADRILLAK

- 14 Gasteiz: Zaharberritze plana Errota auzoarentzat
- 16 Aiaraldea: Baserritarren merkatu berria Laudion
- 17 Zuia: Energia Berriztagarriaren aldeko apustua
- 18 Lautada: Aurrekontu berriak Asparrenan
- 19 Añana: Gaubeako igerilekua, berriz irekita
- 20 Mendialdea: Berdintasunaren aldeko ordenantza abian
- 21 Trebiñu: Musika eskola, herria egiteko
- 22 Arabar Errioxa: paisaia, munduko ondare izateko hautagai

HAMAIIKA SALTSA

- 23 Korrikarekin, kultur festa
- 24 Araban ere, Goyaren zain
- 25 Bertso-misiolariak Altsasun
- 26 Gazteen ahotsak: Joseba Elorza ilustratzaileari elkarrizketa
- 27 Umeak ume: Argazkiak, marrazkiak eta jolasak!
- 28 Postontziak: Zorion mezuak eta argazkiak
- 29 Denbora-pasak
- 30 Agenda



Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.

Zuzendaria
Aritz Martínez de Luna Urzelai

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Itsaso Estarrón Elizondo
Iagoba Domingo Aranzabal

Denbora-pasak
Begi-bistan

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Banaketa
Bidera zerbitzuak

EGOITZA NAGUSIA
Arabako Alea Komunikazio
Taldea S.L.
Eskola kalea, 10, 13. bulegoa,
01001, Vitoria-Gasteiz, Araba
Tel.: 945 71 60 09
625 23 16 03
info@arabakoalea.info

Harpidetzak
harpidetza@arabakoalea.info

Publizitatea
publizitatea@arabakoalea.info

Lege Gordailua: VI-32-2015

Tirada: 3.000 ale

Bultzatzaileak:



Laguntzailea:



ALEAk ez du bere gain hartzen IRITZIA sailean, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileak, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Maiatzaren 24an burutuko dira foru eta udal hauteskundeak Araban, eta urtearen amaieran, hauteskunde orokorrak. | AIARALDEA.EUS

Araba 2015

Hasi berri den urteko gidoian, hitz batzuk idatzita daude: udal eta foru hauteskundeak, Garoñaren berririkiera, gizarte-laguntzen polemika, Euskararen Etxearen abiatzea, Frackingaren aurkako Herri Ekimen Legegilea eta, oraindik ere, burugogor eta letra lodiz, krisia. ALEAK 2015ak Araban eman dezakeenaren panoramika egin du. Gertatu daitezkeen guztiak ez daude, eta dauden guztiak ez dira zertan gertatu behar. Ikusteko dago zer idatzita egongo den behin-betiko bertsioan. **ITSASO ESTARRONA** @itsasoestarrona GASTEIZ

Badago aurtengo egutegian bereziki nabarmenduko den data: maiatzaren 24a. Igan-de horretan burutuko dira Arabako udaletako eta Batzar Nagusietako ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak eta, inkesta gehien iragarpena betetzen bada, goitik behera aldatu daiteke lurraldeko mapa politikoa.

Aldundian, Alderdi Popularrak gobernua galduko luke, Eusko Jaurlaritzaren azken azterketaren arabera. Bere ordezkariak lortuko lukete agintea eta, bozka kopuruan oso gertu, EH Bildu oposizioko indar nagusia izango litzateke. Atzetik, baina ez batere urruti, PP kokatzen dute inkestek. Laugarren postua

PSE-ri egokituko litzaioke eta Podemos jarraituko lioke, UpyD, Equo eta Ezker Anitzaren aurretik.

Hauteskunde beroak

Antzeko aldaketa iragartzen dute hiribururako ere: PP-k zigorra jaso lezake eta EAJ-k Gasteizko alkatek lortzeko aukera izango luke. Jakina denez, Araban oso banatuta daude botoak eta, beraz, nahikoa da bozka kopuruan aldaketa arin bat boterea eskuz aldatzeko. Podemos alderdia izan daiteke aurtien indar politikoen gaur egungo oreka desegin dezakeen

berritasunik nabarmenena. Gasteizen, Amurrión eta Dulantzin hautagaitzak aurkeztu dituzte dagoeneko, eta inkestaren promesa betetz gero, eserlekuak lortuko lituzkete Arabako instituzioetan.

Enpresak, estualdian

Latzak dira oraindik ere langabeziaren azken datuak Araban: urtea ia 27.000 langaberekin hasiko dugu lurraldean. Azken hilabeteetan langabezia tasak behera egin badu ere, aurreko urteko datuekin alderatuz gero langabe gehiago dago orain. Zehazki, 2014ko abenduan aurreko urtean baino 133 pertsona gehiago zeuden enplegurik gabe Araban, Espainiako Lan Ministerioaren arabera. Afiliazioak, aldiz, gora egin du, 686 afiliatu berrirekin Hau

da, jende gehiago dago Lanbideko ilaran eta, aldi berean, jende gehiago dago lanean, lan merkatuan dauden pertsonen kopurua (lanean egon ala

ez) handitu delako.

Langabeen ilara hori are gehiago luzatu daiteke, asko baitira Araban kinka larrian dauden enpresak. Ezagunen artean, Gasteizen pilak

PP-k zigorra jaso eta EAJ-k lortu dezake Arabako gobernua

ekoizten dituen Cegasa eta ECN kable enpresa. Ataka gaiztoan daude ere burdingintzako ArcelorMittal (Agurain), Legutioko Condesa (altzairuzko hodiak), Miñaoko Alestis Aerospace (pieza aeronautikoak) eta Berantevillako Bionor (biodiesela). Lainoen artean, dena den, badaude ere argi izpi batzuk. Bi urteko langatazkaren ondoren, Celsa Atlantic-eko langileak (Laminaciones Arregi) lanera itzultzen hasi dira dagoeneko.

Patrikak, izoztuta

Langile publikoen soldatak, izoztuta. Langabezia sariak, izoztuta. Pentsioak, ia ia izoztuta. Prezioak, izoztuta. Udaletako zergak, izoztuta. Hotzak dago oraindik ekonomia.

Egunero kontsumitu ohi ditugun produktu eta zerbitzuei dagokienez, adibidez, ez gora ez behera daude prezioak, aurreko urteko salneurri beretsuekin sartu baikara 2015ean, Kontsumorako Prezioen Indizeari begiraturaz gero.

Zergei begiratuta, 2014an ordaindutako kopuru bera ordaindu behar izango da urte berrian Arabako udalerrri askotan. Gasteizen, Udalak zerga gehienak izoztu egin ditu: ibilgailua izateagatik ordaintzen den zerga, etxebizitza edukitzeagatik pagatzen den Higiezinaren Gaineko Zerga (HGZ) eta eraikin eta lanen

gainekoa aurreko urteko berdinak izango dira, baita udal haurreskolen prezioak ere.

Tasei dagokienez, ura, zaborrak, piszinetako karneta eta gizarte etxeetako jarduerak %0,25 garestitutuko dira. Eusko Jaurlaritzak ezartzen duen tranbiaren prezioa ere garestitutuko da, bi zentimo txartel arruntaren kasuan (0,73

euroraino) eta hamar zentimo txartel berezia (0,38 eurora).

Bestalde, %5 igo liteke urtean bi milioi euro baino gehiago fakturatzen duten Gasteizko enpresek ordaindu behar duten Jarduera Ekonomikoaren Zerga.

Kontuak izozteko joera beretsua da Arabako beste bazter batzuetan, esaterako Laudion, Amurrión, Oionen eta Agurainen. Arabako aurrekontuei dagokionez, 2014koak luzatu dira, Javier de Andres ahal-dun nagusiak ez duelako aurrekontu berri bat onartzea lortu.

Gizarte laguntzak, pil-pilean

“Magrebiar eta aljeriar gehienak gizarte laguntzen lepotik bizi dira eta ez dute lan egin nahi”. Adierazpen horiekin zalaparta piztu zuen udan Gasteizko alkate Javier Marotok. Bere hitzek ez dute iruzur kopurua murriztu; ordea, etorkinen aurkako iritziak indartuz doaz eta gizarte laguntzak inoiz

Hiru data

Martxoaren 19tik 29ra: Korrika.

Maiatzak 24: Udal eta foru hauteskundeak.

Ekainak 14: Araba Euskaraz Gasteizen, Oiongo ikastolaren eskutik.


26.931

LANGABE ARABAN

laz baino 133 langabetu gehiago daude lurraldean.

baino polemikoago dira orain. Eusko Legebiltzarrari diru sarre-rak bermatzeko errenta jasotzeko baldintzak gogortu ditzala eskatzeko, Laguntza Justuagoak plataforma sortu da (*Ayudas más justas*). Horretarako, 30.000 herri-tarren sinadurak bildu nahi dituzte, eta bulegoa ere ireki dute Gasteizko erdialdean, Correosen aurrean. Hiru astetan, 10.000 babes lortu dituzte. Hala ere, plataformaren irudia minduta dago: bozeramaileak, Patxi Gomezek, dimititu behar izan du, Gizarte Segurantzari ustez iruzur egi-teagatik.

Bitartean, eztabaidaren beste erpinean, Gora Gasteiz herri ekimena abiatu dute, etorkinen inguruan sortu den giro gaiztotuaren



ALIAHALDEA.EUS

Gobernu berria?

Arabako oso banatuta daude bozkek, eta nahikoa da aldaketa txiki bat mapa politikoa berregiteko. Azken inkesten arabera, PP-k zigorra jaso eta EAJ-k lortu lezake lurraldeko gobernu.



ALEA

Langileak, amildegian

Milaka langilek egin beharko diete aurre enpresen gorabeherei aurten ere. Tartean, Gasteizko ECN eta Cegasa, Legutioko Condesa eta Aguraingo ArcelorMittal.



ALEA

Zergak, izoztuta

Udal gehienek zergak eta tasak gehiago ez igotzea erabaki dute. Gasteizen, bakar batzuk garestitutuko dira: zaborrak, ura, piszinetako karneta eta gizarte etxeetako jarduerak.

aurrean elkarbizitza eta eskubide sozialak aldarrikatzeko. Bai kalean baita instituzioetan ere, gizarte laguntzen eztabaida 2015ean gaurkotasan biziko gaia izaten jarraituko duenaren traza guztiak ditu.

Garoña, berriz?

2013a Garoñarik gabeko lehenengo urtea izan zen. 2014a, zentral nuklearra berriz ireki ahal izateko arauak aldatu zirenekoa. Eta 2015a, instalazioa berriro funtzionamenduan jartzeko lanak egingo diren urtea izan daiteke. Nuclenorrek arrazoi ekonomikoengatik eten zuen jarduera, baina orain Espainiako Gobernuak dio segurtasun falta izan daitekeela 44 urte dituen zentral hori ixteko arrazoi zilegi bakaarra, eta berriro piztu ahal izateko dekretu bat onartu du. Ehun milioiko inbertsioa eginez gero, Europar Batasuneko zentralik zaharrena berriro martxan jarri daiteke.

Fracking ez, fracking bai

Haustura hidraulikoaren aurkako 100.000 sinadura bildu ditu Fracking Ez taldeak atzean utzi berri dugun urtean eta, ondorioz, Legebiltzarrak Herri Ekimen Legegilea onartu du. Alderdi politikoez frackinga debekatzeko eta hidrokarburo ez konbentzionalak bilatzeari uzteko eskaera dute mahai gainean. Hortaz, urte erabakigarria izan daiteke hau, Frackingari ate guztiak itxi edo ez zehazteko. Bitartean, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Shesa enpresaren planen artean Subilla Gasteizko putzuak ikertzea dago.



Garoñaren mamua

Zentrala berriro ireki ahal izateko, arauak aldatu ditu Espainiako gobernuak. Instalazioa berriz martxan jartzeko lanak urrirako prest izan ditzakeela iragarri du Nuclenorrek.

Urte berri, aurrekontu zahar

lazko kontuak luzatu behar izan du Javier de Andrés diputatu nagusiak, berriak onartzeko babesik lortu ez duelako. Arabako kontuek 423 milioi euro izango dituzte aurtun; gehienak, lehendik datozen konpromiso eta proiektuei aurre egiteko. Egitasmo berrietarako lau milioi euroko marjina dago, eta kopuru hori nola gastatu Batzar Nagusiek erabaki beharko dute.

Arabako mahastiak, ondare

Etsipena jaso dute askok 2014an, Gesaltza Añanako haranak ez duelako Gizateriaren Ondare izendapena lortu, nahiz eta, hori bai, bisita kopuruan eta diru sarreretan marka egin duen. Bada, aurtun, Unesco berriro ibiliko da Arabako bazterretan. Izan ere, Errioxako eta Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren kultura paisaia Gizateriaren Ondare izateko hautagai izango da. Hautagaitza honekin, bere gainbalioa ezagutzera emateko eta sendotzeko aukera izango du Arabako Errioxak.

Trebiñu, aurrera begira

Trebiñurentzat urte inportantea izan daiteke ere. Espainiako Kongresuak Arabara batzeari ezetz esan

dio 2014an, baina ez horregatik utziko diote lurraldera batzen saiatzeari. Trebiñu Araba da elkarteak dagoeneko aurreatu zuen orain beste bide batzuk aztertuko dituela, arloz-arlo. Aurtun ezagutuko ditugu aukera berri horiek. Hauteskundeak tartean, enklabeak agenda politiko eta mediatikoan egoten jarraituko du datozen hilabeteetan.

Euskalgintza, sasoi onean

Euskalgintzaren baratzen, ale asko loratuko dira 2015ean. Aspaldian lehen aldiz, bertako euskarazko aldizkari bat argitaratuko da astero, ALEA, eta Montehermoso jauregian Oihaneder Euskararen Etxeak indartsu ekin dio bere ibilbideari. Hiriburuan ere, Gasteizko Euskaralagunak proiektua abiatuko da, edozein euskaldunek euskaraz behar duen edozer aurkitu dezan, beste euskaldun batzuekin kontaktuan jarritz. Udaberriarekin batera, Korrika iritsiko da, 19tik 29ra bitartean. Urtero bezala, gainera, Araba Euskaraz jaia ospatuko da udaren atarian. Aurtun, Oiongo San Bizente ikastolak antolatuko du, baina festa Gasteizen izango da, ekainaren 14an.

Baskonia, Kopatik kanpo

Asko luzatu daiteke Araban 2015ean gertatuko direnen zerrenda: hogeitau urte ondoren, bus geltoki berria izango du Gasteizek, baita Udaletxe berria ere, eta ez *green* ez *gastro* izatera ohitu behar izango da berriro hiria, munduko patata tortillarik handiena egiteko saiakeraren porrota behin liserituta.



Oihaneder, martxan

Urrian aurkeztu zuten Oihaneder Euskararen Etxea Gasteizko Montehermoso jauregian, eta jada edukiz hornitzen hasi dira. Zerumugan, Gasteizko Kafe Antzokia.



Unesco dator berriz

Añanako dezepzioa eta gero, Unesco Arabara itzuliko da, oraingoan Errioxako eta Arabako Errioxako mahastien kultura paisaia ondare izendatu edo ez erabakitzeko.



Lehen hiru astetan, 10.000 sinadura bildu ditu Laguntza Justuagoak elkarteak, gizarte laguntzen baldintzak gogortzeko. | ALEA

Kirol mailan, Alavesek aspaldi duen zorra kitatuko du ekainaren 30erako, bere salbazioa posible egin duen hartzekodunen konkursoari aurre egin eta gero, eta Baskoniak Ibon Navarrokekin aurreko denboraldi txarra hobetu dezakeen erakutsi beharko du. Oraingoz, taldeak Errege Kopan jokatzeko aukera galdu berri du, 17 urte eta gero. Txirrindularitzan, Espainiako Itzuliaren etapa bat Gasteiztik abiatuko da lehen aldiz, irailaren 5ean. Etaparik luzeena izango da gainera, 213 kilometro-

koa, Kantabriako El Chivo begiratokira iritsi arte.

Noski, aurten hemen zer gertatuko den, nazio eta nazioarteko gertaerek ere erabakiko dute. Bake prozesuak, Osakidetzako lan deialdiak eta kalean edateko eta estadioetan erretzeko debekuak markatuko dute, besteak beste, ebolak sarraskiak egiten jarraituko duen urtea, Siriako gerrak eta Estatu Islamiarrak azaletan egoten jarraituko duten urtea, Nigeriako, Sudango edo Somaliako gatazka odoltsuak azaletan ez egoten jarraituko duten

urtea eta gizakia lehen aldiz zunda batekin Plutonera iritsiko denekoa.

Espainiako Itzuliko etapa bat Arabako hiriburutik abiatuko da lehen aldiz

Bus geltokia eta Udaletxe berria estreinatuko ditu Gasteizek aurten

IZAN...



ALEA
arabako aldizkaria

hir!net

INFO:
info@arabakoalea.info
erredakzioa@hir!net.net

ARGAZKIAK EGIN...
IRRATIAN HITZ EGIN...
DISEINUAK EGIN...
TESTUAK IDATZI...

NAHI DUZUN BEZALA
PARTE HARTU



Gao Lacho Drom elkarteko lehendakari Pascual Borja, Sansomendi auzoan duten egoitzan. | IAGOBA DOMINGO

PASCUAL BORJA

GAO LACHO DROM ELKARTEKO LEHENDAKARIA Arabako ijitoen beharrei erantzuteko lanean, hiru hamarkada bete ditu Gao Lacho Drom elkarteak; Eraberean diskriminazioaren kontrako plataformarekin bat egin du. **A. AMENABAR** @anamenabar GASTEIZ

"Sentsibilizaziotik harago, Justizia lanean hasi behar da "

Hiru hamarkada bete ditu Gao Lacho Dromek, Araban ijitoen alde lanean ari den elkarteak. Eta, oraindik orain, hasierako antzerako kezakak dituztela gogoratu du Pascual Borja elkarteko lehendakariak: hezkuntza, etxebizitza eta lana. Diskriminazioari aurre egiteko, bestalde, Eraberean plataformarekin bat egin berri du elkarteak.

Hogeita hamar urte bete ditu elkarteak. Hasierako eta gaur egungo kezak berdinak al dira?

Berdinak ez badira, oso antzekoak, eta, are gehiago, atzeraka egin dugu la esango nuke. Kezka nagusiak hasierakoak dira; hezkuntza, lana eta etxebizitza ez dira iraganeko kontua, gaur egungo arazoa dira. Etxebizitza behar handia daukagu, are gehiago krisi egoera honetan, eta lan falta ere bai, noski. Eraikuntza diru iturri nagusia zen, ijito ugari zeuden lanean bertan, eta bertan behera geratzarekin batera

ehunka lagun geratu ziren lan merkatutik kanpo, beste sektore batzuetan sartzeko aukerarik gabe. Ez dago horren kontrako egitasmorik gainera, inorentzat, eta are gutxiago ijitoentzat.

Zein da Gao Lacho Drom elkarteak, egogorra horretan, egin dezakeen ekarpena?

Elkartetik azken urteetan batez ere argibideak eskaintzen saiatu gara. Aholkularitza lanak egin ditugu. Baliabideen inguruko orientazioa eman diegu, laguntzak, prestazioak... Eta, batez ere, formakuntzaren aldeko apustu indartsu bat egin dugu, apustu nagusia da guretzat. Uste dugu hezkuntzak bakarrik lagunduko gaituela ateratzen mugitzen garen inguru honetatik, baztertze eta marjinazio inguru honetatik.

Hain zuzen, diskriminazioaren kontra egiteko, Eraberean plataformarekin bat egitea erabaki duzue, ezta?

Beste edozein giza taldek baino nabarmenago pairatzen dugu ijitook diskriminazioa, eta hori da ardu-

ratzen gaituen kezka nagusietako bat. Ez dut nik esaten, hala erakusten dute egin diren inkestek eta elkartera bertara heltzen diren salaketek. Agerikoa da diskriminazioa. Etxebizitza bat alokairuan hartzeko arazoak, taberna batzuetan sartzeko trabak, hainbat zerbitzu jasotzeko oztopoak... Hau guztia benetako arazoa izan daiteke ijito izate hutsagatik. Noski, diskriminazioaren kontrako borroka zainetan darama Gao Lacho Dromek. Alor guztietan eragiten du horrek, eguneroko borroka da. Borroka horretarako, baina, ez ditugu guk nahiko genituzkeen tresna eta baliabideak, eta horregatik uste genuen beharrezkoa zela Eraberean plataformarekin bat egitea eta beste elkarte batzuekin indarrak batzea.

Zer lan izango du plataforma horrek?

Plataforma osatzearekin batera esaten ari gara, erakundeen babesarekin, arazo bat dagoea, gure artean dugula arazo hori eta beha-



Pascual Borjak txikitatik "ijito izate hutsagatik" diskriminazioa jasan duela azaldu du. | IAGOBA DOIMINGO

rrezkoa dela tresna eta baliabideak sortzea horri aurre egiteko. Herrialde honetan diskriminazioa dago, eta gero eta nabariagoa, egungo krisi egoerak areagotu duena. Zokoratzea, diskriminazioa eta intolerantzia areagotu egin da, hori mahai gainean jartzea da plataformaren lan nagusia. Begiradak batuz, bakoitza bere aldetik lanean ibili beharrean, arazo horri nola aurre egin diezaiokegun dugu erronka nagusia, eta horretan lanean ari gara. Elkarte bakoitzak ahal izan duen moduan egin du aurre orain arte, aholkularitza lana dela, informazioa dela edo auzitegietako lana dela, eta horrek askotan ez dugun dirua, denbora eta ahalegin handia eskatzen du.

Diskriminazioari aurre egiteko, erakundeen aldetik orain arte hartutako neurriak nahikoa izan dira?

Abiapuntu oker batetik ari garela uste dut. Arrazakeria, xenofobia, homofobia... arazoari abizena jartzea okerra dela uste dut. Arazo horrek

"Ozen esan behar da, egia esan behar da, diskriminatzea delitu dela"

"Herrialde honetan diskriminazioa dago eta gero eta nabariagoa"

izen bakar bat baino ez du: diskriminazioa. Argi eta garbi esan behar dugu, egoera eta arazoa edozein delarik ere. Afera modu absolutuan jorratu behar dela uste dut, eta ez erlatiboan. Horregatik du zentzua Eraberean plataformak; denok batera, talde bakar batean, honen kontra borroka egitea da helburua. Azkenaldian diskriminazioaren edo arrazakeriaren afera sentsibilizazioaren ikuspuntutik bakarrik jorratu da, sentsibilizazio kanpaineekin. Ez diskriminatu "zatarra" delako, ez diskriminatu "gaizki" dagoelako,

"politikoki zuzena" ez delako... Ozen esan behar da, egia esan behar da, eta jendeari esan behar zaio diskriminatzea delitu dela. Hori da mezua. Sentsibilizaziotik harago, beharrezkoa da Justizia lan egiten hastea, horrek ere egiten baitu pedagogia lana. Zuzenbide estatuaren barruan erakutsi behar dugu zer dagoen gaizki eta zer ez, eredu izan behar da, eta garrantzitsua da jurisprudentzia egotea. Ez da ulergarria pertsona batzuek ijito familia baten kontrako manifestazioa antolatzea; askotan pentsatzen dut beste auzokideren batekin egingo ote zuten gauza bera, ezetz uste dut. Ijitoekin bai, ausartzen dira. Duela urte batzuk Bastidan izan genuen halako gertakari bat, eta Bizkaian ere ikusi dugu nola adreiluz ixten zuten etxe bat Zugastietan (Bizkaia) ijito familia etxe hartara iritsi aurretik. Ez dakit, beharbada pentsatuko dute ijito izateagatik soilik dagokigula halakoak bizi behar izatea, etsigarria da askotan. Gazteagoa nintze-

nean gogoratzen dut Gasteiz erdi-gunera joaten ginela kuadrillan trago batzuk hartzera eta buruan genuela hainbat lekutan sarrera debekatuta izango genuela; debekatzeari ez zen larriena, larriena debeku hori nolabaiteko naturaltasunez onartu genuela da.

Gaur egun halako salaketarik jasotzen al duzue?

Uste duguna baino salaketa gehiago daude. Kexa ugari heltzen zaizkigu eta ez da anekdotikoa. Taberna batzuetan modu automatikoan gertatzen da, erabateko zigorgabetasuna dutelako. Egia da, gainera, zaila izaten dela salaketa jartzea, edozein aitzakia erabil dezaketelako herritar talde batzuei taberna horietako sarrera debekatzeko. Ijitoak egoera honetara ohitu behar garela ematen du, bigarren kategoria batekoak bagina bezala. Hainbat alorretan dago lana... eta hiztegiak hartu baino ez dugu egin behar jabetzeko ijitoen inguruko zer definizio agertzen diren; Euskaltzaindiak ematen duen azalpena, esate baterako, kezkatzeko

"Edo diskriminaziorik ez dugu edo sistemak ez du ondo funtzionatzen"

"Emakume ijitoa izango da aldaketa motorea, aldaketarik izango bada"

modukoa da, "lapurren herria" omen da ijitoen herria. Halakoak zuzentzen ez baditugu, nekez zuzenduko ditugu beste batzuk.

Zigor handiagoak behar dira?

Zigorrak betearazi baino ez dira egin behar. Zenbat lagun dago gaur egun diskriminazioagatik kondena betetzen? Inor ez. Edo herrialde honetan ez dago diskriminaziorik edo sistemak ez du funtzionatzen. Guk argi dugu diskriminazioa dagoela eta zer dagoen gaizki. Alokairuetan dugu adibide argienetako bat; horietakoren bat alokatzera joan eta, kasualitatez, alokatu berri dutela jakitea. Ijito familia bat bertara joango dela jakitean aldatzen dira gauzak... Lana topatzeko ere bene-



Sansomendi auzoan du egoitza Gao Lacho Drom elkartearen. | IAGOBA DOMINGO

tako lanak izaten dira, oraindik enpresario askok ez dituztelako ijitoak nahi. Eta azkenean hau guztia onartu dute ijito askok, normalizat ikusten dute eta hori da, hain zuzen, salatu nahi duguna.

Zer iritzi duzu Javier Maroto alkateak azken hilabeteetan egindako adierazpenen inguruan?

Kezkagarriak dira. Kezkatzen nau ezarri nahi duen prestazio eta laguntza eredu hori. Ez dakit nola mantendu daitezkeen sistemak horiek beraiek murrizten, ez dakit nola defendatu daitezkeen sistemak horiek moztzen, horiei eraso egiten...Oraingoan prestazio sistemari buruz ari da, eta uste dut ez duela zentzu han-

dirik. Kolektibo batzuen inguruan egindako adierazpenen harira, uste dut hausnarketa sakona egin behar duela. Datuak ikusten baditugu, noski, agerian geratzen da kolektibo batzuek behar handiagoa dutela beste batzuek baino, zoritxarrez beste aukerarik ez dutelako. Laguntzak jasotzen ditu talde babesgabeenak, normala den moduan. Talde horretan zer gertatzen den ikusi behar dugu epaitu aurretik, egoera horretan egoteko zer bizi izan duten horien kontrako irainak bota aurretik; herritar horiek lan egin nahi ez dutela esatea burugabea da. Prestazioei esker bakarrik egin dezakegu aurrera kolektibo batzuek.

Sumina areagotu dela uste duzu?

Bai, eta herritarrak lasaitzea espero dut. Gizarte batean gaitzak daudenean babesgabe dagoenari leporatzen zaizkio eta ijitoak beti egon dira denen ahotan arazoak egon direnean. Baten bati egotzi behar zaio, izan munstroa, zakuaren gizona edo ijitoa. Dena den, azkenaldian hainbeste atzerritarrekin ijitook erreferentziazko delinkuente izateari utzi diogu, eta beharbada hori gertatu zaio Javier Marotori ere. Azkenaldian lasai antzean gaude, beste leku batera begira dabil.

Hedabideetan etengabe ateratzen dira ijitoen inguruko albisteak...

Bai, eta hori ere aztertu behar dugu. Hedabideek paper garrantzitsua duzue, eta askotan ijitoen ingurukoak nola jorratzen diren ikustea mingarria da; ez da batere egokia, ezta onargarria ere. Horikeriaz jorratzen dira asko, ia beti modu negatiboan, kronika orrietan...horrek min handia egiten du. Aurreritziak osatzen laguntzen dute, eta uste dugu hedabideek ere gure aliatuak

"Uste dut, epe motzera txikienek emango digutela poztasun gehien"

izan behar direla lan horretan. Ezin besteko laguntza da guretzat.

Nola uste duzu jorratu direla bartolotarren inguruko albisteak ?

Basatia izan da. Nik irakurri dut albiste berdina hainbat egunetan, inolako ekarpenik egin gabe, informazioak eman gabe, betelana eginez... eta ez dut ulertzen. Normalean, hiltzen den pertsonari buruz ez dira gaizki esaka aritzen egunkariak, denak izaten dira onak, baldin eta bartolotarren familiakoa ez bada. Gogoan dut familiako bat ehorzten ari ziren egun berean haren kontrako berri bat zekarrela Araban gehien saltzen den egunkariak, *El Lute* edo *El Vaquilla* balitz moduan. Oso haserre gaude egunkariak eman dioten tratamenduari.

Epe motzera, zer helburu finkatu dituzue elkarteak?

Epe motzera, uste dut gure txikienek emango digutela poztasun handiena. Aurreko egunean jakin genuen albistea, Sansomendi auzoko eskolak



Eraberean plataformaren aurkezpena. | ALEA

Jaurlaritza eta beste hainbat eragile batu dira diskriminazioaren aurka

Arrazagatik, arrazoi etnikoengatik eta sexu zein genero identitateagatik diskriminatua izateagatik hamaika salaketa jasotzen dituztela eta, horri "erantzun bateratua" emateko asmoz, Eraberean plataforma sortu berri dute Eusko Jaurlaritzak eta hamabi eragilek. Urtebeteko prozesuaren ondoren aurkeztu dute egitasmo "serio eta sakona"; epe luzera begirakoa, eta gizarte eredu aldatzea helburu duena, aipatu dutenez. Eraldaketa sozial eta kulturala du xede, "gizarte inklusiboa" lortzea. Heziketak garrantzia handia izango du, beraz, sarearen zereginetan. Prebentzioaren aldetik, sentsibilitatearen alorretik eta pedagogian oinarrituta egin nahi dute lanaren zati handia.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Juan Mari Aburtok, eta Agifugi, Aldarte, Euskadiko CEAR, Bizkaiko CITE-CCOO, Gurutze Gorria, EHGAM, Errespetuz, Gao Lacho Drom, Gehitu, Kale Dor Kayiko, Nevipen eta Sos Arrazakeriako ordezkariak bat egin dute plataformarekin. Aburtok azaldu moduan, sarea bultzatzea dagokio Jaurlaritzari. Kudeaketaz arduratzea, aholkularitza zein informazio espezializatua ematea eta baliabide ekonomikoak jartzea. Aurtengo aurrekontuetan, 80.000 euroko diru saila sareari ematea onartu du. Elkarteak lan nagusia, berriz, "antena gisara" aritza izango da. Nork bere eremuko diskriminazio goerak atzeman, eta horien berri ematea.

Espainiako hezkuntza sari bat jaso duela bertan egindako lanagatik, eta gure haurretako asko han daude. Gero eta gehiago dira bigarren hezkuntza arrakastaz amaitzea lortzen dutenak eta uste dugu egungo belaunaldiak ekarriko dutela diskriminazio egoera hauetako asko aldatzea. Espazioak hartzen goazen heinean ere diskriminazio hau desagertzen joango da. Elkarbizitza oso garrantzitsua da eta horretan gaude; gure txikiak unibertsitatera heldu eta dagozkien lekuak okupatzen hasteko garaia da.

Emakumeen inguruko atal berezia ere baduzue elkarteak, ezta?

Emakume atal bat dugu bi emakumeren laguntzarekin, batez ere for-

mazioari begira. Emakume ijitoa aldaketa motorea izango da aldaketarik izango bada, bera baita seme-alabei balio eta kultura igortzen die. Nolabait zentroa da, eta, beraz, aldaketa faktore nagusia. Datu bat ere aipagarria da: neskak dira nota onenak dituztenak eta unibertsitatera heltzen direnak. Gero eta protagonismo handiagoa du, gero eta langile gehiago eta hori lantzen jarraitu behar dugu. Elkarteak informatika, euskara, eta bestelako hainbat jarduera eskaintzen ditugu.

Nola ospatuko duzue urteurrena?

Oraindik ez dakigu nola, baina ospatuko dugula zalantzarik ez. Pentsatuko dugu, baina folklorerik ez da faltako, kar kar.

IRATI ICIAR
@Iratilciar
UEU-KO LANGILEA



Ondo esanak gogoan hartu...

Esaera zahar hori burutik ezin kenduta nabil ALEAKOek iritzi zutabea idazteko gonbidapena egin zidatenetik. Nik? Nik iritzi zutabe bat idatzi? Ez naiz idazlea, ezta kazetaria ere, eta idazten ditudan testu bakarrak laneko txostenak eta txioak dira, lehenak testu zurrinak, buleta eta estatistikadunak, eta besteak, gehienez 140 karaktere dituztenak!

"ALEAK guztion parte-hartzea behar du eta arabar gisa parte izan nahi dut"

"Ekinez egin egiten dela dio beste esaera batek; ikasten joango naiz"

horren parte izan nahi dudalako.

Hala ere, niretzat sekulako erronka dela #dai-tort. Gai izango al naiz irakurtzea merezi duen testu bat idazteko? Nire iritzia idatzi eta argitaratzeko bezain interesgarria ote da? Eta, batez ere, esaera zaharraren bigarren parteak ematen dit erreparu handiena: nik idatzitako horrek norbait mintzen badu?

Tira, ekinez egin egiten dela esaten du beste esaera batek, apurka-apurka eginez ikasten joango naiz, eta bihotzez joan bedi aurretik...

gaizki esanak barkatu...

Eta hara, baiezkoa eman diet. Alde batetik, ohorea delako nigana jo izana, arduradunek hala egin badute, zerbaitengatik izango da -nik neuk oraindik deskubritu ez dudana zer edo zer-, ezta?

Baina, bereziki, ALEAren proiektuak guztion parte-hartzea behar duelako eta arabar gisa

IÑAKI LARRAÑAGA
@InakiLarra
KAZETARIA



Hau ez da zutabe bat, oraindik

Hau ez da *Espainia* idatzi zuten, errotuladore gorriz. Biharamunean, esaldi horren ondoan, erantzun bat agertu zen: *Hau zutabe bat da*. Bigarren hau zorrotzago zebilen; eslogana, egia esan, solairu bati eusteko euskarri bertikal baten betikotu zuten. Porlanezkoa zen gainera.

"Zure modukoek %38 dagoeneko orriaren bestaldera pasa da"

Datu jakingarri bat, eta zorionak, irakurle: zure modukoek %38 dagoeneko orriaren bestaldera pasa da. Zenbaki hori sareko artikulua lehen lerrotan uzten dituztenen ehunekoa da, J.Schwartz zientzialariaren arabera. Irudipen ziztrin batek diosta paperak ez duela leialtasun handiagorik merezi. Pena da hainbestek sarrera testu hau erdibidean abandonatu izana. Batez ere, alde aurretik jakin izanez gero, toki honetan publizitate espazio bat saldu zitekeelako.

Hitz ematen dizut. Aurrerantzean ez dut Alea zilbor-hesteko korapiloak askatzeko erabiliko. Zutabe bihurtuko den honek, hau da, aldizkako iritzi artikulua finko, Araba eta periferiako gaiak izango ditu hizpide. Ganorazko zutabetzarrak. Amarrurik gabe... baina amuak nonahi, ahal dela.

Amaiera bat zor dizut, honaino iritsi zarenez gero. Ideia nagusi bat edo halako zeozer. Gauza bat kontatu nahi dizut. 2015eko igarkizun bat da. Aipatzeaz-aspertu-zaren-hori alkate izendatuko dute, beste lau urterako. Hasieratik bukaeraraino.

Esandakoa. Zelulosa eta tinta artxipelago honetan ez duzu heldulekurik ere aurkituko. Hau zutabe izanez gero, ezinezko litzateke paperrezko pilotatxo bihurtzea. Eta hitzak ez dira adreiluzkoak.

AMETSA ITSASEGIAREN ZINTA



#JeSuisBasque

Hamabi abokatu atxilotu dituzte aste honetan. #AbokatuakLibre #AtxilotuakAskatu. Etiketa asko, etiketatzen zaila den operaziorako. I.E. @itsasoestarrona GASTEIZ



Oihan Txabarri @oihantxabarri

Je suis Charlie mais je ne suis pas les avocats basques, bien sûr. #JeSuisBasque #AbokatuakLibre



Katixa Agirre @katixagirre

Espainiako iritziz publikoan zerbait aldatzen ari da, Twitterren behintzat. Wishful thinking? #JeSuisBasque #AbokatuakLibre



Gorka Bereziartua @boligorria

Eta lapurrek ohostu dute guk gendukana etxean; eta gu gaude erdi biluzik, beti inoren menpean (Oskorri) #JeSuisBasque



Igor Goikolea @goikoleaigor

Kazetariak identifikatzen ari dira egunotan #JeSuisCharlie-rekin adierazpen askatasuna "defendatu" dutenen txakurrek



Mikel Pérez @MikelPerez22

Bakezaleak gara, bakea nahi... adios! badatoz berriro! Bakean bizi nahi dugun abokatuak, ikasleak... gizakiak gara! #AbokatuakAskatu



Mikel Ayllón @Maikoxki

Ez etsi. Isilaraziko ditugu sirena-hots lazgarriak noizbait. #AbokatuakLibre #JeSuisBasque



Juan Kruz Lakasta @jklakasta

Epaiketa politiko bateko defentsako abokatuen aurkako operazio fiskal armatua #KontzeptuGisa #MarcaEspaña

Trebiñuk eserlekua behar du Arabako Biltzar Nagusietan

IÑIGO LARRAMENDI GASTEIZ

Ipar Amerikako britaniar kolonoak (ondoren Amerikako Estatu Batuak sortu zuten horiek) metropoliaren kontra jarduten hasi zirenean, lelo bat erabili zuten: *no taxation without representation*. Hots, ordezkapenik gabe, zergarik ez. (...).

Arabako alderdien artean ba omen dago Trebiñurekin bat egiteko nahi irmo bat, eta Biltzar Nagusien azken bileran batzarkide gehienek Trebiñu Zortzigarren Kuadrilla bezala hartzea adostu zuten. Ez litzateke logikoa izango, orduan, Trebiñuk Batzarretan ordezkapenik ez edukitzea: *no policy without representation*. Aurtengo Batzar Nagusietarako hauteskundeak direla eta, zentzuzkoa litzateke eserleku bat Trebiñurentzat uztea (...).

Baliteke indarrean dagoen legediak aukera honi uko egitea, bertako ordezkari gehienak aldekoak izan arren. Zilegi litzateke, orduan, daukagun legedia benetan autogobernu bat ote den, edo agian bestelako zerbait, galdetzea. Izan ere, autogobernua eta berezko gobernua ez dira gauza bera. Hor dago hordagoa. aNorbait jokatzeko prest?

(Gutun osoa, hirinet.net-en).

Parte hartzeko: info@arabakoalea.info.

Gehienez, 800 karaktere. ALEAK eskubidea du gutunak laburtzeko eta HIRINET.NET atariarekin elkarbanatzeko. Beharrezko datuak: egilea, herria eta telefonoa.





Salburua eta Zabalgana kexu dira, hobekuntzen zain

Udal gobernuak agindutako hainbat proiektu geldirik daudela salatu dute auzo elkarteek

ITSASO ESTARRONA @itsasoestarrona
GASTEIZ

Arkaiatekoa izan da azken kapitulua: kaleen urbanizazioa amaituta zegoela iragarri zuen duela aste-bete Gasteizko udal gobernuak, eta handik ordu batzuetara sutan zeuden sare sozialak: barandak, farolak eta baldosak falta dira oraindik, besteak beste. Arkaiatekoa bezala,

auzo berrietako beste proiektu asko atzeratuta edo hasi gabe daude, eta auzo elkarteak zain egoteaz aspertu direla salatu dute.

Zabalganan, Udalak agindutako hamar proiektuetatik hiru daude amaituta: Iruña Veleiako zubia, Leza kaleko haurrentzako eskola eta Reina Sofiako hiriguneko pasagunea. Zabalgana Batuz elkarteak

azaldu berri duenez, ortuak amaitu gabe daude, eta gizartetxea eta haurrentzako jolastoki estalia egiteko lanak atzerapenez hasiko dira, aurtan. Beste

"Hau ez da zebrabide bat; agian auto batek harrapatuko zaitu"
SALBURUAKO SEINALEA

egitasmo batzuek ez dute datarik, esaterako frontoia eta futbol zelaia.

Gasteizko ekialdean, Salburua Burdinbide elkarteak sinadura-bilketa abiatu du, hobekuntzak aldarrikatzeko. Alkateari egin dioten azken eskaera zebrabide bat izan da, osasun zentroa eta eskolaren artean. Bata eta bestea banatzen dituen errepidea ehunka auzokidek gurutzatzen dute egunero, baina ez dago oinezkoentzat marrarik. Eskatutako zebrabidea Udalak margotu ez, eta seinale bat jarri du auzo elkarteak: "Hau ez da zebrabide bat, eta auto batek harrapa zaitzake".

Burutzeke

Kirol guneak: Salburua eta Zabalganako agoraspase-ak.

Zabalganako frontoia: Oion eta Lantziego kaleen artean.

Futbol zelaia: Zabalganako Mahatma Ghandi kalean.

Haurrentzako jolastoki estaliak: Salburuako Ekialdeko parkean eta Zabalganako Unesco pasealekuan. Aurtan jarriko dituzte estaliak.

Gizartetxeak: atzeratu egin dira. Zabalganan aurtan abiatuko dituzte lanak; Salburuan dagoeneko martxan daude.

Arkaiateko urbanizazioa: farolak, barandak eta baldosak falta dira.



Salburuan kartela jarri dute auzokideek, zebrabidea eskatuz. | ALEA

GIZARTE LAGUNTZAK

Hamar mila sinadura lortu ditu Laguntza Justuagoak plataformak hiru astetan

I. ESTARRONA
GASTEIZ

Atzerritarrei diru laguntzak jasotzeko baldintzak gogortzeko, 10.000 sinadura lortu ditu Laguntza Justuagoak plataformak, Gasteizen azken hiru asteetan egin duten izenpe bil-

ketan. Hala iragarri zuen Javier Maroto alkateak asteartean Udalean egin-dako agerraldian.

Correosen duten bulegoaz gain, Barakaldon beste bat irekiko dutela aurreratu zuen Marotok, ekimenaren sustatzaileak.



Maroto, asteartean. | L DOMINGO

ELIZA

Gasteizko gotzainak bere kargua utziko du

Gasteizko apezpiku izateari utziko dio martxoan Miguel Asurmendik, 20 urte eta gero. Izan ere, 75 urte bete ditu, eta adin horrekin utzi behar dute kargua gotzainek.



Mila etxebizitza zaharberritzea aurreikusten du Jaurilaritzak Udalarri proposatu dion planak. | I.D.

Errota auzoa eraberritzeko plana aztertuko dute

I. ESTARRONA

GASTEIZ

"Urrezko auzoa" esaten diote azkenaldian Gasteizko Errota auzoari (*Coronación*, gaztelera). Urrezkoa, ez luxuzkoa delako, baizik eta bere zahartzaroan sartu delako, horrek dakartzkion aje eta min guztiekin. Orain, ingurua zaharberritzeko aukera aztertuko dute Eusko Jaurilaritzak eta Udalak.

Esku-hartze premia duten Euskadiko auzoen zerrendan dago Errota eta,

ondorioz, Europako HORIZON 2020 programako diru laguntzak baliatzeko aukera aurkeztu berri dio Jaurilaritzako Ingurumen Sailak Gasteizko Udalarri.

50

MILIOI EURO

Inbertsio handia aurreikusten du planak, Europako diru laguntzak lortuz gero.

Zehazki, mila etxebizitza zaharberritzea aurreikusten dute, irisgarritasuna eta isolamendua hobetzeko. Kaleetan ere lanak egin nahi dituzte, mugikortasuna erraztu eta itxura aldatzeko.

Dena den, proiektua oraindik airean dago. Astelehenean bildu ziren lehenekoz Ana Oregi Ingurumen sailburua eta Javier Maroto Gasteizko alkatea, eta plana aztertzen jarraitzeko bigarren hitzordu bat zehaztu zuten.

Zehatz-mehatz

Mila etxebizitza:

eraikin zaharrenak eraberritu nahi dituzte.

Kale eraberrituak:

mugikortasuna eta auzoaren itxura suspertu nahi dituzte.

Finantzazioa: Europak, Jaurilaritzak, Udalak eta bizilagunek jarri beharko lukete dirua.

Bilerak: Jaurilaritza eta Udala dagoeneko biltzen hasi dira, ekimena garatzeko aukerak aztertzeko.

Harrera: Albiste ona dela esan du auzo elkarteak, baina bizilagunek ordaindu beharreko kopurua jeistea eskatu du.

50 milioi euroko inbertsioa eskatzen du planak. Lau hanka izango lituzke finantzazioak: Europako aguntzak, batetik; Jaurilaritzaren aurrekontua, bestetik; eta Udaleko eta auzokideen ekarpena, azkenik.

Errota Zaharra elkar- teak "pozik" hartu du albiste- a, baina bizilagunek ordaindu beharko luketen kuota jeistea eskatu du: 85 euroko kopurua "gutxienez 40 eurora" jeisteko eskakizuna egin du.

UDAL ZERGAK

Enpresek ordaintzen duten zerga gutxiago igotzeko Marotok egin duen aldaketa, auzitara

I. ESTARRONA

GASTEIZ

Airean dago oraindik bi milioi baino gehiago fakturatzen duten Gasteizko enpresek aurten ordaindu behar izango duten zerga.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) %41ean igotzea adostu

zuten hasieran Udal gobernuak eta EH Bilduk, baina berehala egin zuen protesta SEA Arabako enpresari- en elkarteak.

Presio horien ondorioz, atzera egin zuen Javier Maroto Gasteizko alkatea. Ondorioz, zerga aurten %5a eta datorren urtean

beste horrenbeste igotzea adostu du EAJ-rekin.

Arazoa da hasieran adostutako igoera indarrean sartu dela eta, hori aldatu ahal izateko, Arabako Batzar nagusiek foru arau bat moldatu beharko dutela. Aldaketa horren inguruko txosten juridikoa eskatuko du EH Bilduk, Aldundiak aurrea eginez gero, auzitara joko du.



Gasteizko saltokiak. | I. DOMINGO



Hileroko azokan euren elikagaiak salduko dituzte tokiko ekoizleek Laudion | AIARALDEA.EUS

Tokiko ekoizleen jarduerak bultzatuko dituzte Laudion

Baserritarren merkata burutuko dute hilero Laudion, bigarren larunbatean. Udalaren eta nekazarien elkarlanari esker abiatutako ekimena da.

AITOR MARTINEZ @IrauliTalrabazi
LAUDIO

Baserritarren lehenengo merkata abenduaren 13an antolatu zuten Laudion. Ordutik aurrera, hilabete bakoitzeko bigarren larunbatean errepi-katuko da. Laudioako Udalak eta tokiko baserrita-

rrek elkarrekin abiatu dute ekimen berri hau.

Baratze elkarteak

Horrekin batera, tokiko ekoizleen produktuen eta elikagai osasuntsuen kontsumoa sustatzeko helburua duen Baratze elkarteak ateak ireki ditu. Lokala

Motxotekale 4-n kokatuta dago, eta irekiera egunak astelehen, asteazken eta ostirala dira, 17:00etatik 20:00etara. Tokiko ekoizleekin harremanak landu eta haien produktuak salduko dituzte, bai eta Euskal Herriko eta kanpoko gai ekologikoak ere.

Elikagai bilketa egingo dute Tindufeko errefuxiatuentzat

AIARALDEA.EUS @aiaralde

AIARALDEA

Tindufeko (Argelia) errefuxiatu sahararren kanpalekuek oinarritzko elikagaiak eramateko, "Piztu itxaropena" Euskal Karabaren hamaikagarren edizioa antolatu dute.

Hori dela eta, Amurrio-Aiarako SEAD-en Lagunen Elkartek ere elikagaiak bilduko ditu, hilaren bigarren hamabostaldian. Amurrio eta Laudioko supermerkatu eta eskoletan arituko dira. Amurrioren, urtarilaren 16 eta 17an, eta Laudion, berriaz, hilaren 23 eta 24an.

LAPURRETA

Lapurreta egin dute Laudioko Santander bankuan

AIARALDEA.EUS

LAUDIO

Urtarrilaren 8an izan zen lapurreta eta ez zen zauriturik egon. Ez dute zehaztu zenbat diru eraman duen lapurrak. Ertzaintzak operazioa jarri du martxan egilea topatzeko.

Hedabideek zabaldu zuten, gizon bat sartu zen Santander bankuko egoitzan, goizean. Aurpegia estalita, langileak pistola batekin mehatxatu zituen. Lapurreta eta gero, bankuak ez zituen ateak guztiz ireki, eta horrek auzokideen susmoa eragin zuen.

PRISCILLAK DISKO BERRIA DU

Priscilla Band Funk taldeak dira eskualdeko hainbat musikari: Amurrio, Artziniega eta Laudioak, besteak beste. Urtarrilaren 8an kaleratu dute bere bigarren diskoa; *Xalala kale*. Five Corners taldeak ere bere lehenengo diska kaleratu du: *Nork bere bidea*.



Priscilla Band taldeak funk musika egiten du. | PRISCILLA BAND



Garuña berriz irekitzeko apustuaren kontra irmo azaldu da Zuiako Udala. | ALEA

Energia berriztagarria kontsumituko du Zuiak

Goiener kooperatibak hornituko du udalerriko argiteria publikoa urtariletik aurrera

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar
ZUIA

Zuiako udalerrriak, aurretik, energia %100 berriztagarria kontsumituko du bertako argiteria

publikoan. Goiener kooperatibak egingo du hornikuntza; batez beste, 158.000 euroko kontratua izango du hurrengo urteari dagokionean.

Udaletik jakinarazi dutenez, lizitazio honi esker aurrezpen ekonomikoa lortuko du faktura elektrikoan. "Baina are garrantzitsuagoa, udalak

pauso sendoa eman du gizakien segurtasun eta osasunari mehatxurik ez dakarkieten energia iturrien alde", aipatu du udal gobernua ohar batean. EH Bilduk bultzatutako eredu energetikoa gauzatzeko "beste urrats bat" dela azaldu dute. Bestalde, Zuiak Iberdrola eta Endesa enpresek Garoña berriz irekitzeko egin duten apustuaren aurkako konpromisoa hartu duela gogoratu dute. "Lizitazio honen bidez, Zuiako Udalak benetako haustura egin du Iberdrolarekiko harremanean, Garoñako zentral nuklearraren enpresa jabeetako bat baita".

Garoñako zentral nuklearra Zuiako udalerritik kilometro gutxi batzuetara dagoela gogoratu dute udal gobernutik. "40 urte baino gehiago daramatza gure segurtasuna arriskuan jartzen eta itxita beharko luke, behin betiko eta atzera bueltarik gabe". Endesak eta Iberdrolak duten jarrera "arduragabea" dela salatu dute.

EKITALDIA

Urrezko Zeledon saridunen ekitaldiak izan dira Aramaion

A. AMENABAR
ARAMAIO

Urrezko Zeledon izendapena duten hiru aramaioarrak protagonista izan ziren asteburuan. Jose Mari Velezek jaso du azkena, baina aurretik Rafael Mendialduak eta Sabin Salaberrik ere jaso dute Gasteizi egindako ekarpenagatik emandako saria.

Jose Mari Velez de Mendizabalek hitzaldia eskaini zuen asteburuan XIX. mendean prentsan Aramaio izan zuen presentziaz. Bestetik, Rafael



J.M. Velez de Mendizabal. | ALEA

Mendialduak meza eskaini eta Sabin Salaberrik organoan lagundu zuen.

SAGARDO BERRIA

Fracking Ez-ek ireki du Arabako txotx garaia

A. AMENABAR
ARAMAIO

Arabako sagardogileek atzo eman zioten hasiera 2015eko txotx denboraldiari, Aramaioko Iturrieta sagardotegian. Fracking Ez elkarteko kideek zabaldu zuten sagardo berria duen kupela.

Arabako sagardogileek "edari goxo eta naturala" dastatzera animatu zituzten herri-tarrak. Baina ez aramaioarrak bakarrik, izan ere, atzoko txotx

ekitaldian ez zuten bakarrik bertako sagardoa aurkeztu nahi izan, Arabako sagardoa baizik, Arabako Sagarzaleen Elkartearen izenean (ASSE). Hala, besteak beste, Trebiñuko Koldo Markinez eta Ozetako Koldo Borobia sagardogileak ere izan ziren irekiera ekitaldian.

Jan eta edanarekin batera, ekitaldia giro-tzeko, bertsolariak, trikitilariak eta txalapartariak izan ziren Aramaioko sagardotegian.



Belar artifizialeko futbol zelaia egiteko 106.000 euroko inbertsioa egingo du Asparrenak. | ALEA

Futbol zelaian izango da inbertsio handiena aurten

Joan den ostegunean onartu zuen Asparreneko Udalak 2,6 milioiko aurrekontua

ANAKOZ AMENABAR @anamenabar
GASTEIZ

Aurtengo aurrekontua onartu berri du Asparreneko Udalak Bildu eta C.I.A alderdien babesarekin.

Guztira, 2,6 milioi euro izango dira, besteak beste, kultur arloan, azpiegitura atalean edota bederatzi kontzejuetan inbertsioak egin ahal izateko.

Aurrekontua onartu aurretik herritarrekin eztabaidatzeko eta ekarpenak jasotzeko hiru bilkura antolatu zituen Asparreneko Udalak. Era

berean, bederatzi kontzejuetako kideekin bilkura bat egin zuen urtea amaitu aurretik; udalak kontzejuetara sinatuta duen hitzarmena berritu du eta aurten 80.000 euroko diru saila izango dute inbertsioak egiteko. Inbertsio horietaz aparte, Eginoko bidearen konponketarako –Nafarroako mugan– 30.000 euro bideratuko ditu.

Arloz arlo, kirol atalari dagokionez 278.500 euro inbertituko ditu, 67.600 musika jardueratan, 135.600 euro euskara eta kultura sustatzeko eta beste 75.400 euro gizarte gaie-tarako. Azken atal honetan, besteak beste, eguneko arreta zentroaren kudeaketa, adineko pertsonentzako etxebizitzak eta gizarte gaien arloko beste jarduera batzuen kudeaketa aurreikusten dute.

Inbertsio handiena belar artifizialeko futbol zelaia egiteko izango da. Horretarako 106.000 euro gorde ditu Udalak, baina aurrekontu hori Futbol Federazioko diru laguntzen arabera moldatuko dela azaldu dute.

BALIABIDE GARBIAK

Biomasa galdara jarriko dute Araian, udal eraikinetarako

Aldundiak 98.000 euroko inbertsioa egingo du aurten

A. AMENABAR
GASTEIZ

Arabako Aldundiak 98.000 euroko inbertsioa egingo du Araian biomasa galdara bat abian jartzeko. Horrekin, hiru udal eraikin hornitu nahi dituzte: kultur etxea, anbulatorioa eta eskola. Guztira, 261.000 euroko aurrekontua izango du galdarak.

Asparreneko herri basoak erabili nahi dituz-

te energia iturri moduan. Udalerriko Aizkorri-Aratz inguruetako basoetan egingo diren mantentze-lanetatik eskuratutako hosto, adar eta enborrak erabiliko dituzte biomasa lortzeko. Era honetan, gainera, natur guneak kudeatzeko tresna eta baliabideak hobetuko dituztela azaldu dute, eta ondasun naturala hobeto zaindu ahal izango dutela.

Helburua Araiaiko eraikin publikoetarako energia lortzea da, baina etorkizunean beste hainbat txokotara heltzeko asmoa dutela ere jakinarazi dute egitasmoaren sustatzailerek. Lehenengo fasean anbulatorioa, kultur etxea eta eskola hartuko ditu egitasmoak eta bigarren batean Udaletxea, erretiratuaren etxea, eguneko zentroa, hiltegia eta zinema ere hartuko ditu.

Hainbat adibide

Energiaren alorrean ugari dira bide berriak bilatzen ari diren herriak. Biomasaari dagokionez,

Okina izan zen pausoa ematen lehendabizikoa; ur beroa eta berogailua jartzeko lehenengo galdara jarri zuten, herritarrek gas natural sistema jartzeari uko egin eta gero; gasaren fakturak nabarmen igo zirela eta, beste aukera batzuen bila hasi ziren. Arabako Aldundiak eta inguruko basozainek azterketa egin eta gero, biomasa sistema ezartzea erabaki zuten.

Okinarekin batera, Aramaion ere erdiguneko etxebizitza guztietarako egitasmoa aztertzen ari dira, aurten abian jartzeko asmoz.



Uribarri Gaubeako udal igerileku estalian amaitu dituzte berritze lanak. | GAUBEATIK ATARIA

Igerilekuak ireki dituzte, berritze lanen ostean

Azaroan su hartu zuen Uribarri Gaubeako kirol guneak eta kalte larriak jasan ziren; bi hilabeteko lanek 20.000 euroko inbertsioa eskatu dute

ESTITXU UGARTE @estitxuugarte
KARANKA

Bi hilabetez itxita egon ondoren, berriro zabaldu dute Uribarri Gaubeako udal igerileku estalia. Aza-

roan izandako sutearen ondorioz igerilekua itxi eta konponketa lanak egin behar izan dituzte. Hilaren hasieran berriro zabalduko zutela agindu zuen

Udalak, eta hala egin dute.

Udalerrian topagune den kirol instalazioak ohiko ordutegia berreskuratu du. Hala, astelehenetan, astearreetan eta ostegunetan arra-

tsaldez bakarrik egongo da zabalik, 16:00etatik 21:00ak arte. Asteazkenetan, ostira-lean eta larunbatetan berri-ze, goizez eta arratsalde-ze, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 21:00ak arte. Jaiegunetan goizez bakarrik zabalitzen dute.

Udaletik jakinarazi dutenez, berritze lanak egiteko 20.000 euro inguruko inbertsioa egin behar izan dute. Iragan urteko azaroan kirol gunearen instalazio elektrikoan gertatu zen suteak kalte larriak eragin zituen erai-kinean, begiraleen gela igerilekuaren inguru osoa kiskalita. "Hogeita hamar urtean gertatu den lehen-biziko istripua izan da" adierazi dute Udaletik.

Uribarri Gaubeako igerileku estalia da udalerrian urte osoan bizi diren bizi-lagunentzat kirol instalazio bakarra; udan aukera gehi-ago daude kirola egiteko, Gesaltzako eta San Millan de San Zadornileko kanpo-ko igerilekuak zabalitzen dituztelako. Bertan, gaine-ra, urtean zehar hainbat ikastaro antolatzen dituzte umeentzat zein helduentzat.

BISITARI KOPURU HANDIENA

Inoizko bisitari kopuru handiena izan du 2014. urtean Gesaltzako gatzagak. Guztira, 64.296 lagunek bisitatu zuten, aurreko urtean baino 13.151 lagun gehiagok. Saldutako gatz kopuruak ere nabarmen egin zuen gora pasa den urtean, 396.656 euroko irabaziek.



Añanako gatzari eskainitako Slow Food nazioarteko aitorpen ekitaldia. | QUINTAS

Berdintasunaren alde lan egiteko ordenantza onartu dute Kanpezun

Berdintasun zerbitzua sortuko dute udalerrian, eta Udal organoetako ordezkaritza parekidea izan beharko da

I. ESTARRONA @itsasoestarrona

KANPEZU

Gutxi dira gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko arau bat duten herri txikiak. Bi mila biztanle baino gutxiago dituztenen artean, "Kanpezu da lehena Araban", bertako alkate Esteban García Campijok (EAJ) ALEari azaldu dionez. Abenduan onartu zuten, osoko bilkuran, eta behin erreklamazioak jasotzeko epea bukatzen denean sartuko da indarrean.

Udal mailan eta kalean lan egiteko abiapuntua izango da ordenantza berria. Instituzioari dago-kionez, hainbat gauza aldatuko dira. Hemendik aurrera, udal organoetako ordezkaritza parekidea izan beharko da; hori horrela, sexu bereko pertsonak ezin izango dira %60a baino gehiago izan, ez eta %40a baino gutxiago ere. Horrez gain, hizkuntza ez sexista erabili behar izango dute argitaratzen dituzten dokumentu guztietan, eta estereotipoak indartzen dituzten irudiak eta jarrerak saihesteko agindua bete beharko dute. Udaleko langile guztiak norabide berean joateko, formakuntza eta aholkularitza jasoko dute.

Kale mailan, Kanpezuko udalerriko herrietan (Santikurutze, Bujanda, Antoñana, Oteo eta Urbiso), kontzientzazio eta sentsibilizazio kanpainak abiatuko dituzte. Bertako elkar-teentzat formazio saioak antolatzeak asmoa dute ere, jakin badakitelako matxis-



Kanpezuko udalerriko herri guztietan aplikatuko da arau berria; argazkian, Urbisuko panoramika. | ALEA

moa "leku guztietan bizi dugun arazoa den arren, mendialdean eta nekazal eskualdeetan agian beste inguru batzuetan baino errotuago" dagoela, García Campijoren hitzetan.

Helburu horiek guztiak betetzeko, berdintasun zerbitzu bat sortzeko lanean hasiko dira aurten Kanpezun. Horretarako, Udaleko egitura aldatu beharko dutela azaldu du García Campijok: "Orain arte ere ari ginen ezberdintasunak gainditzeko lan egiten, baina ordenantza honekin forma eman-go diogu lan horri guztia-ri eta gure egitura molda-tuko dugu".

Udal zerbitzuek pres-tatu dute ordenantza, Dipu-tazioaren diru laguntzen bitartez kontratatatu ahal izan duten teknikari bate-kin batera. "Aurten ere,

"Mendialdean agian desberdintasunak oraindik nabariagoak dira"

"Udalean bakarrik ez: udalerriko elkarteekin ere lan egin nahi dugu"

ESTEBAN GARCÍA CAMPIJO
KANPEZUKO ALKATEA

foru finantzazioa" izango dutela espero du alkateak.

Non dago gaitza?

Berdintasunaren osasun-maila neurtzeko, lehenen-go erradiografia egin beharko dutela onartu du García Campijok: "Egia esan, gaur egun ez dugu estatistikarik, zenbakirik,

diagnosirik; ordenantza indarrean sartzen denean, ordea, diagnostikoak egi-ten hasi beharko gara, ondoren horietan oinarri-tutako lana egiteko".

Zer formazio maila dute ordezkari politikoe-ko? Zein da bere sentsibiliza-zio maila? Galdera horie-kin, etxetik hasiko dira erradiografia egiten.

Eta herritarren parte-hartzea? Orain arte, ez dute Kanpezuko biztanleen ahotsa dokumentuan txer-tatzeko lanik egin. Alkateak dio, ordea, ekarpenak jaso-tzea gustatuko litzaiokeela: "Azken urtean udal mailan lan egin dugu ordenantza prestatzeko, bestela gehiegi atzeratu zitekeelako araua; baina, egia esan Kanpezuko herritarren parte-hartzea moduren batean edo bestean antolatatu beharko genuke aurrerantzean".



Adin guztietako herritarrak, Argantzuneko musika eskolako kitarra kontzertu batean. ALEA

Musika, herria egiteko tresna

Argantzuneko musika eskola sendotu nahi du Txingoka elkarteak, eta abesbatza abiatu

ITSASO ESTARRONA @itsasoestarrona
ARGANTZUN

Negozorik onenak mahai baten inguruan egiten direla esan ohi da, eta halaxe gertatu zen Argantzunen ere: bazkari batean sortu zen herrian musika eskola abiatzeko ideia.

Duela urte batzuk, garai analogikoan, bazegoen herrian kartoizko banda bat, turuta eta dandor batzuekin herri osoa dantzatzeko gai zen horietako bat. Desagertu zenetik, ordea, musikaririk gabe geratu zen herria.

Isilune horri aurre egiteko erronka hartu zuen bere gain Txingoka kultur elkarteak, Argantzun ikastolako bazkari batean. Hala, duela hiru urte musika eskola sortu zuen.

Hutsik zegoen penta-

grama hori apurka-apurka ari da notaz betetzen, eta dagoeneko hiru eta zortzi urte bitarteko hogeita lau haurrek jasotzen dituzte klaseak. Argantzunekoak bakarrik ez, Trebiñu, Erribera Behea eta Erribera Goitiko umeak ere joaten dira eskolara, ez baitago Trebiñun eta inguruko eskualdeetan halako besterik. Oasi bat, basamortuan.

Musika egiteko plazer hutsagatik egiten dute musika, baina ez bakarrik: herri egitasmo gisa ere ulertzen dute. "Gure helburua proiektu potente bat egitea da; alegia, epe ertain edo luzera banda edo txaranga bat osatzea". Txingoka elkarteak Alfredo Anguloren hitzetan, "herritarrak konturatu

behar dira herrirako zer garrantzia eduki zezakeen abesbatza, txaranga edo dantza taldea edukitzeak".

Korua osatzeko deia

Abesbatza da abiatu nahi duten lehenengo taldea, zuzendari gisa eskarmendu handia duen irakasle bat dutela baliatuta. Momentuz hiru lagunek eman dute izena, beraz musikazale gehiago erakartzeko lanean ari dira gaur egun.

Instituzioei ere dei egiten die Txingokako ordezkariak, "gehiago inplikatu" daitezten. "Administrazioak egitasmo honen aldeko apustua egin beharko luke; agian planteatzen dizkiegun epeak ez zaizkie erakargarri egiten, baina benetan balio duten gauzak

900

EURO

Argantzuneko Udalak diru kopuru hori eman dio eskolari, eta klaseak emateko gela bat utzi. Herriko apaizak apaiz-etxea ere utzi die.

Hitz gutxitan

Nork sortu du eskola?

Txingoka elkarteak.

Non dago?

Argantzunen.

Nongo haurrak doaz?

Argantzun, Trebiñu, Erribera Behea eta Erribera Goiti.

Zer ikasten dute?

Hastapen klaseak eta musika hizkuntza.

Abesbatza: hiru lagun

animatu dira oraingoz. Herriar gehiago erakarri nahi dituzte.

ez dira egun batetik bestera eraikitzen".

Ikasturte honetan, 900 euro eman dizkie Argantzuneko Udalak eta, klaseak emateko, apaiz-etxea utzi die ere Josetxu herriko apaizak.

"Aspaldi, bazegoen 30 laguneko banda Argantzunen; orain, zergatik ez?"

"Benetan balio duten gauzak ez dira egun batetik bestera eraikitzen"

ALFREDO ANGULO
TXINGOKA ELKARTEA



Hainbat lagunek bisitatuko dute aurten Errioxa; argazkian, Basque Culinary Center-eko ikasleak. | QUINTAS

Ardoaren eta mahastien paisaia, sari handiaren bila

Udaberrian jakitera emango du Unescok Arabako Errioxa munduko ondare izendatuko duen

AMENABAR @anamenabar
GUARDIA

Arabako Errioxako paisaia hamaika begirada izango ditu so aurten, udaberrian ezagutzera emango baitu Unescok munduko paisaia ondare izendatuko duen. Duela bost urte hasitako lanak fruituak emango dituen ikusiko dute herritarrek, edota – Añanako gatzagan iaz gertatu moduan – epaimahai-kideek lehiatik kanpo utziko duten.

Maiatzean epaia jakin bitartean, bertako hautagaitzaren gizarteratze kanpainan dihardute Eusko Jaurlaritzak, Arabako Aldundiak eta Arabako Errioxako kuadrillak. "Ardoari lotutako eskualde bat baldin badago Europan, hori Arabako Errioxa da, zalantzarik gabe. Eskualdeko herrien dependentzia erabatekoa da. Adibide gisa, Eltziego eta Navaridas herrien nekazaritza lurren %90 mahastiak dira", adierazi du

Miguel Larreina Mahastizaintza eta Enologiako masterdunak. Mahastien paisaia barruan, bertako dolmenak, harkaitz-dolareak, nekropoliak, museo zeltiberiarrak, zubi erromatarak, mahastiak zaintzeko txabolak edota eliza gotikoak nabarmentzeko ahalagina egingo dutela azaldu dute sustatzaileek.

Badira, ordea, aurkeztutako egitasmoarekin kritiko agertu diren hainbat ahots. Egitasmoa aurkeztu duten moduan "asmo politiko nabarmena" ageri dela salatu du, esate baterako, Gonzalo Saenz de Samaniego nekazaritza sailburu ohiak, eta Arabako Errioxarentzat "kaltegarria" izan daitekeela uste du, zonaldeak dituen bereizgarriak nabarmentzen ez dituelako Errioxarekin (Espainia) batera aurkeztutako egitasmoan.

"Balioa berreskuratu"
Ildo beretik, Jesus Bauza Errioxako jatorri deitura

batzordeko kideak "Arabako Errioxa" izena gehiago ikus dadin eskatu du. "Azkenean munduko ondare bagara, dauden eskualdeetako ardoaren kalitatea dastatuko duen jendea erakar dezake. Baina horretarako ere ardoarekin identifikaturik egon behar dugu". Haren ustez, "benetan garrantzitsua" da bisitariak Arabako Errioxako ardoa edaten ari direla jakitea. "Horrela baino ez dugu galdutako balioa berreskuratuko".

Juanma Lavin Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidearen presidentek, halaber, bertako paisaiaren "identitatea" nabarmendu behar dela uste du. "Itxaropena dut Unescok gure errealitatearen dokumentua idazteko denbora emango digula. Gure historia definitu eta nortasuna azalduko duen dokumentua, gure jendearekin, mahastiekin eta, finean, gure errealitatearekin bat egingo duena".

AZPIEGITURAK

Plaza berri bat prestatzeko proiektua aurkeztu dute Samaniegon

A. AMENABAR
SAMANIEGO

Aurten beste plaza bat izan dezake Samaniegok. Helburu horrekin ari da lanean, behintzat, Udala. 50.000 euro inguruko aurrekontua beharko dute horretarako eta diru atal nagusia Eusko Jaurlaritzaren bitartez jasotzea espero dute, Erein egitasmoaren bitartez.

Herriko erdigunean prestatu nahi dute plaza berria, Murriarte eta Cercado kaleen artean. Hala, beharrezko altzariak jarri eta herritarrentzako espazioa berreskuratu nahi dute.

ARGAZKILARITZA

Bastidako 600 argazki zahar baino gehiago batu dituzte

A. AMENABAR
BASTIDA

Argazkilaritzak elkartuta, hamaika egitasmo antolatu ditu Visitadores de Labastida Bastidako taldeak, argazki lehiaketa edota erakusketak tartean.

Herritarren laguntzari esker, Bastidako eta Buradon Gatzagako 600 argazki zahar baino gehiago batu dituzte Facebook-en. Ekinaldi horren bitartez, halaber, zuri beltzeko argazkiei esker, beste ekinaldi batzuk abiatu dituzte; besteak beste, San Roke dantza berreskuratzeako azterlana egiten ari dira.



Fausto antzezlanak izango da Korrika Kulturala egitarauaren barruan eskainiko duten ikuskizunetako bat. | ALEA

Korrikarekin, kultur festa

Martxoaren 19tik 29ra helduko da Korrika, baina aurretik iritsiko da Korrika Kulturala; antzerkia, musika, lehiaketak, ardo dastaketa eta pailazoaren emanaldiak aurkeztu dituzte ekitaldien artean **A. AMENABAR** @anamenabar GASTEIZ

Laster izango da Arabako herrietan barrena euskararen aldeko lasterketa erraldoia, hizkuntza-aren aldeko kontzientzia suspertu eta gau eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea helburu duena. Martxoaren 19an Urepelen hasi (Nafarroa Beherea) eta hamar egun beranduago Bilbon amaituko da. Lasterketarekin batera, baina, kultur egitasmo sendoa aurkeztu du Korrikaren antolatzaile den AEK euskaltegiak, euskal kultura lau bazterretara zabaltzeko asmoz.

Fausto antzezlanak, *Gosariak* ekinaldiak, *Hordago ardoa!* dastaketa saio artistikoei, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoei, Bertso Korrikak eta Bertsolaritzaren sekretuak emanaldiek osatzen dute egitarauaren zutabe nagusia. Gainera, Korrika Kulturalak hiru lehiaketa abiaraziko ditu, eta, Korrikaren webgunean ez ezik, bere ikuskizunen eta emanaldien agenda eskuko telefonoetarako sorturiko aplikazio batean kontsultatu daiteke.

Galder Perezek zuzenduriko *Fausto* antzezlanak urtarrilaren 29an estreinatuko dute, Donostiako Antzoki Zaharrean, eta ondoren helduko da Gasteizera. Bestalde, Joseba Sarrionandia idazleak, Gose musika taldeak eta Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea artista plastikoei indarrak batu dituzte *Gosariak* lanean. Estreinaldia hilaren 22an izango da, Bilbon, eta ondoren helduko da Arabako hiriburura.

Mikel Garaizabal enologoak zuzenduko du *Hordago ardoa!* saio artistikoa; ardo dastaketarekin batera, zuzeneko musika, margolanak, antzerkia eta bideoa ere uztartuko dituzte saio hauetan. Bertsozale Elkarteari elkarlanean, gainera, bertso saioak egingo dituzte lurralde guztietan.

Beste alde batetik, jendearen parte hartzea bultzatzeko, argazki lehiaketaz gain, Korrika hasi baino lehen Korrika Kulturalak hiru lehiaketa abian jarri ditu: abesti bertsioa, koplak lehiaketa eta bideo lehiaketa.

Korrikaren inguruko guztiak ezagutarazteko, hurrengo egunetan hainbat bilera izango dira lurraldeko hainbat txokotan; gaur, esaterako, 17:30ean bilera izango da Gasteizko Ibaiondo gizarte etxean.



Kepa Sojo zuzendari audioarraren *Loco con ballesta* film laburreko irudia. | ALEA

Arabian ere, Goyaren zain

Euskal zinemagintzak utzitako hainbat lan hautatu ditu Espainiako Zinema Akademiak otsailaren 7an banatuko dituzten Goya sarietarako; besteak beste, Kepa Sojoren *Loco con Ballesta* laburra izango da lehian. **A. AMENABAR** GASTEIZ

Euskal zinemagileen 2014ko uzta oparoak hamaika sari jaso ditu eta beste hainbat irabazteko bidean da. Besteak beste, Goya sarietarako hautagaien artean izango dira *Loreak* euskarazko filma, eta Karra Elejalde aktore gasteiztarra eta Kepa Sojo zuzendari audioarraren *Loco con Ballesta* film laburra.

Espainiako Zinema Akademiaren sari nagusia irabazteko lehian dagoen euskarazko lehen filma izan-

go da *Loreak*, Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren lana. Musika onenaren saria lortzeko ere lehian da *Loreak*, Pascal Gaignek sortutakoari esker. Daniel Monzonen *El niño*, Alberto Rodríguezen *La isla mínima*, Damian Szifronen *Relatos salvajes* eta Carlos Vermuten *Magical Girl* pelikulekin lehiatuko da.

Kepa Sojo EHUKo irakasle eta zinemagile arabarraren laugarren lana ere lehian izango da otsailaren 7an banatuko dituzten sarietan. Film

labur onenaren saria lortzeko lehian izango da *Loco con Ballesta* komedia; estreinatu zutenetik 24 sari eskuratu ditu filmak eta San Marino, Brujas, Montpellier edota San Petersburgoko jaialdietarako ere hautatu dute. Bertan Andres Gertrudis eta Karra Elejalde dira protagonista, eta Gorka Aginagaldek, Iñigo Salinerok edota Itziar Atienzak ere parte hartu dute aktore lanetan.

Elejalde, hautagai

Bigarren aktore onenaren sarirako ere hautatu dute, gainera, Karra Elejalde; *Ocho apellidos vascos* komedian arrantzaletan papera egiteagatik aukeratu dute aktore gasteiztarra. Kategoria horretan Goya saria irabazi zuen 2010. urtean *También la lluvia* pelikulagatik. Carmen San Esteban aktore gasteiztarra ere izan zen hautagaien zerrendan *Tres Mentiras* pelikulagatik, baina ezin izan du finalisten artean sartu.

Euskal ekoizpenei dagokienez, halaber, *Dixie eta matxinada zombia* filma ere lehian izango da animaziozko pelikulen artean. Ricardo Ramonek eta Beñat Beitiak zuzendu eta Abra Produksioak-ek ekoitzi du filma.



Abenduaren 22tik 28ra izan ziren Altsasun Arabako bertsolari gazteenak bertan antolatutako barnetegian. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bertso-misiolariak, Altsasun

Arabako bertsolari gazteenek Altsasun izandako topaketan eman zioten amaiera urteari, beste hainbat gazterekin batera antolatutako barnetegian; bertsoak sortu, antzeztu edota dantzatzeko aukera izan zuten. **BERTSOZALE ELKARTEA** GASTEIZ

Bertsoa gauza soila da, asko balio ez duena, hai-zearekin batera badoana. Baina, hara, kontraesana: barnetegi bat antolatuzko besteko balioa badu! Joan den abenduan izan zen azkena, beste hainbat bertsozalarekin batera Altsasun (Nafarroa) antolatutakoa.

Esperientzia luzea du Arabako Bertsozale Elkarateak halakoak antolatzen: ez da alferrik elkar tearen transmisio egitasmoaren ardatzetako bat. Helburu argia dute barnetegiak: bertsoa bidelagun hartuta, ondo pasatzeko gogoz dagoen ume-kuadrilla autobusean sartu, eta leku eder batean bildu, aisialdiko jarduera dibertigarriak egiteko. Barnetegia "bertsotan entrenatzeko" lekua dela pentsatzen duena, oker dabil: bertsoaren eta kantuen eskutik, ondo pasatzeko lekua da, sarritan "esperientzia ahaztezin" ere bihurtzen dena (galdetu, beste-l, parte hartzaileei, barnetegitik

bueltan datozenen!). Non, eta Nafarroan (baina urrunegi joan gabe!) izan da azkenekoa. Altsasuko Otadiako Santo Kristo aterpetxean elkartu ziren, joan den abenduaren 26tik 28ra, 8 eta 12 urte arteko 22 ume. Gehienak Arabako Lautadakoak, eta baita Mendialdekoren bat ere.

Hamaika saio

Bertsoak askotarako eman dezakeela erakusten dute begiraleek Altsasun antolatutako ekintzek. Bertso-misiotan aritu ziren bertsozale gazteenak, altsasuar guztiak harrituta uzteraino; antzezle, dantzari eta bertsolari "profesional" izan ziren, hamar minutuz; kanta bat egin zuten; bertso-afari bat zer zen probatzeko aukera izan zuten...

Soila izango da bertsoa, baina baita moldagarria ere. Badu jendea elkartzeko gaitasuna, eta asteburu zoragarri bat igarotzeko aitzakia ere eman dezake.

Datorrena

Bihar aurkeztuko dute Arabako Bertsolari Txapelketa, Langraiz Okan. Urtarrilaren 25ean jokatu dute lehenengo saioa Dulantzín, eta martxoaren 21ean izango da finala, Gasteizko Principalen.

Kopla

Alea martxan, ta
estreinatzeko aukera
dugu jada...
Bertso zaporeko
aletxoak uzten
saiatuko gara!



Joseba Elorza Gasteizko ilustratzailea. | GALDER IZAGIRRE

JOSEBA ELORZA

ILUSTRATZAILEA AEB-etako hainbat argitalpen ezagunentzako ilustrazioak egiten dituen arren, Berri Txarrak taldearen azken lanerako egin dituen diseinuekin ezagutu dugu Joseba Elorza (Gasteiz, 1983). **AITOR ABAROA, GAZTEZULO GASTEIZ**

"Ikus-entzunetan analfabetoak gara"

Artean, dena asmatuta dago? Ezetz pentsatzeko joera daukat, baina seguru nago dena berrasmatu daitekeela. Gizarteak aurrera egin ahala (edo atzera, egia esan), bizitzarekiko dugun ikuspuntua aldatzen doa, eta bera-ekin batera artea. Beraz, behin eta berriz ikuspuntu berri hori islatzeko berrasmatu egin behar da. **Artxiboko irudiak erabiltzen dituzu. Denbora asko ematen duzu bilaketa lanetan?** Askok. Are gehiago, nahiz eta lanik ez izan, orduak pasatzen ditut Interneten argazki eta bideo zaharren artxiboetan arakatzen. Argazki horiek guztiak bata bestearen ostean ikusita ezinezkoa da milaka ideia burura ez etortzea. **'Collagea'-aren artean, lizentzien kontuarekin arreta izan behar da?** Ahalegintzen naiz gauza horiekin

kontuz ibiltzen. Zorionez, ez dut inoiz arazorik izan. Erabiltzen ditudan argazki eta bideoak hain dira zaharrak jada libreak bihurtu direla, eta gehienak nahi duzunera-ko erabili ditzakezu. Hala ere, argazki eta bideo bakoitzaren lizentzia kontuan izan behar da. Espero dut FBIa nire etxean ate-joka inoiz ez aurkitzea.

"Iruditzen zait hemendik kanpo gehiago inbertitzen dutela ilustrazioan"

Baten batek esango du Photoshoparekin edonork egin dezakeela zuk egiten duzuna... Eta ez diot arrazoirik kenduko. Nik nire kabuz Photoshop edo After Effects erabiltzen ikasi badut, edozeinek egin dezake. Hala ere, gauza bat da zerbait egiteko gai izatea, eta beste bat, oso ezberdina, egitea. **Zu autodidakta izan zara. Orain, aldiz, online ikastaroak ematen dituzu.**

Internet gauza jakin batzuk ikasteko eskola ezin hobea bihurtu da, baina egia da batzutan faltan bota izan ditudala hainbat ezagutza teoriko, eta horiek, suposatzen dut, hobeto irakasten dituztela eskoletan. Hasi nahi duen gazte bati eskola on batera joatea gomendatuko nioke, baina argi utzita ez diola inoiz ikas-teari utzi behar. Zentzu horretan, nik nire ekarpena egiten dut Domestikako ikastaroan, ez baitut sekreturik gordetzen.

Irudiz inguratuta bizi gara, baina inork ez digu irakasten, testuak irakurtzen irakasten digutenbezala, irudiak irakurtzen. Irudiek manipula gai-tzaten kondenatuta gaude? Ikus-entzunezkoen aro edo gizartearen gaude, baina guztiz analfabetoak gara arlo horretan, bai irudiak irakurtzeko orduan, zein irudi berriak ekoizterakoan. Twitter, Facebook edo YouTubeetik bueltatxo bat ematea nahikoa da horretaz konturatzeko. Hara, duela ez asko herritar askok ez zekiten irakurtzen, eta hori gutxi batzuentzako oso onuragarria zen. Badirudi norbaitek zerbait irabazteko duela jendearen analfabetismo berri honekin ere.

Eta nola da posible Berri Txarrak taldearentzako lan egin arte Euskal Herrian zure lana oso jende gutxi ezagutzea? Ezin jakin zergatik. Normalean garestiagoa da ilustratzaile bati irudi bat sortzeko ordaintzea agentzia batetik argazki bat erostea baino. Eta iruditzen zait hemendik kanpo gehiago inbertitzen dutela ilustrazioan, beraz, errazagoa da niri atzeritik deitzea hemengo aldizkari batetik baino.

gaztezulo **eus**
HI ETA HIRE MUNDUAK

ZURE ARBELA



Elurretara! Lera polit hauek oparitu dizkie Olentzerok Izadi eta Xabierri. Orain, ea elurra egiten duen!



Jolasten Bikain pasa genuen ALEAREN aurkezpen jaian, ez da?



Paisaia Koloretako zuhaitza, ardi berdea, txori alaia eta eguzki bizia marraztu ditu Ninak. Hau margolan ederra.



Alea Marrazki hau oparitu digu ume batek. Ez al da polita? Eskerrik asko egileari!

Bidali zure argazki eta marrazkiak
info@arabakoalea.info
helbidera!

HITZ ZOPA

Hitz zopa Bila itzazu hizki salda honetan ezker eskuin ageri diren irudiak. Norabide guztietan ageri dira hitzok!



A	N	I	K	Z	A	G	E	H	A
L	A	Z	T	S	U	O	M	A	Z
E	I	S	U	T	T	A	I	A	R
U	S	A	U	E	O	G	A	N	O
R	O	H	U	B	M	I	Z	E	G
A	E	K	O	G	O	R	A	R	E
L	U	L	O	Z	B	T	A	T	I
E	G	A	S	O	I	G	U	H	O
B	I	Z	I	K	L	E	T	A	D
G	U	T	R	E	A	P	I	R	A



SOLUZIOA

A	N	I	K	Z	A	G	E	H	A
L	A	Z	T	S	U	O	M	A	Z
E	I	S	U	T	T	A	I	A	R
U	S	A	U	E	O	G	A	N	O
R	O	H	U	B	M	I	Z	E	G
A	E	K	O	G	O	R	A	R	E
L	U	L	O	Z	B	T	A	T	I
E	G	A	S	O	I	G	U	H	O
B	I	Z	I	K	L	E	T	A	D
G	U	T	R	E	A	P	I	R	A



GASTEIZ

Aisha Kan Estarrona

"Duela aste gutxi sortu zinen mundura. Ongi etorri, Aisha! Zure lehengusu eta lehengusinak".



GASTEIZ

Gotzon Ariznabarreta eta Mila Navarro

"Zorionak aita eta ama, zuen ezkontzako 40. urteurrenean, eta eskerrik asko egunero hain guraso onak izateagatik. Bihotzez, Ainara, Eneko eta Maitane".



GASTEIZ

Eduarne Urzelai Bolinaga

"Zorionak, ama! Zurekin egunero dugu ospatzeko zerbait. Orain arte bezain irribarretsu jarrai dezazula hemendik aurrera ere. Aritz eta Eneko".



GASTEIZ

Naroa Cuesta Niso

"Zorionak, Naroa! Lankide eta lagunak".



GASTEIZ

Maddi Iraeta Mateos

"Zorionak Maddi! Pasa den urtarilaren 3an bi urte bete zenituen. Zer azkar pasatzen den denbora! Jarraitu ezazu orain arte bezain maja eta alai. Musu eta besarkada handi bat".



MAEZTU

Jaione Olabe Laserna

"Zure abesti goxoak faltan botako dituzte Markelek eta Xabiertxok, baita guk ere. Salburuako zure lagunak zorterik onena opa dizugu Bartzelonako ibilbide berrian!".

Norbaiti zure mezua helarazi nahi al diozu? Bidali astelehena baino lehen: info@arabakoalea.info

ZURE ARGAZKIAK

Parte hartzeko Bidali zure argazkia info@arabakoalea.info helbidera eta aipatu non eta noiz atera duzun.



Urtegia Jorgen Barrionuevo.



Asparrena Olga Agirre.

HITZ GEZIDUNA

			Zartatua, hautsia	▼	Indarrik gabeara	▼	Faltsu-keria	▼
			EH-ko mendialdea		Uztai		Abian jarri	
			▶		▼		▼	
			* Gure lurraldea	▶				
			Ezinezko direnak					
Kontzeptu	▼	Ez ezker	▶	▼				
Harrian idatzitakoak		Ekintza adierazten du						
▶		▼						
Zezen zikiratua	▶				Ate, hitz elkarteetan	▶		
Aginide					Gaixo			
▶					▼	Oinarrizko edari	▶	
						3. eta 2. bokalak		
Arraia-Maeztuko kontzejua						▼	Tona, labur-labur	▶
Euskalki bat							Kontso-nantea	
▶							▼	

SOLUZIONI

HITZ GEZIDUNA

I	A	R	E	V	A	K	Z	B
T					U	A	T	
R	U		E	N	T	G	I	
A	T			A	D	I		
K				U	K	Z	D	A
N				S	K	U		A
A	R	A	B					
A	R	A	L	A		A		
T					K			

SUDOKUA

[illegible]

GOITIBEHARA

G E Z U R R A
 E G U R R A
 A G U R E
 G U R A
 U R A
 A R A U
 G A R A U
 G A R U N A
 A G U R A I N

SUDOKUA

1			9			2		4
				3	2		6	
9					4		5	
3		9	6			5		
		5			3	1		2
	2		4					5
	9		3	8				
7		4			9			8

Nola jokatu? 9x9-ko lauki honetako gelaxka hutsak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiekin; zenbaki bakar bat ere ez da bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, eta ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

GOITIBEHERA

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak. **1.** Arabako Lautadako udalerria. **2.** Burmuina. **3.** Ale, bihi. **4.** Lege. **5.** Oinarritzeko edaria. **6.** Nahia. **7.** Gizon zahar. **8.** Sutarako zura. **9.** Ez da egia.



Bertso bazkaria. Manex Agirre, Xabi Igoa, eta beste hainbat bertsolarirekin

Antezana Larunbatean, 15:00etan, Iñurritia elkartearen.

San Anton. Erraldoi eta buruhandiak, haurrentzako jolasak, zezen suzkoa eta San Anton txikiren zozketa

Gasteiz Larunbatean, 17:00etatik aurrera, Plaza Berrian.



URTARRILA

16

URTARRILA

22

EUSKARAREN AGENDA

MUSIKA

Revolta Permanent

Gasteiz: Asteartean, 20:30ean, Parral tabernan Iker Villak, Iker Aginagak, Aitor Abiok eta Mikel Becerrak osatutako taldea.

Inun

Gasteiz: Ostegunean, 19:30ean, Oihaneder Euskararen Etxean.

BERTSOLARITZA

Euskharan jaia

Gasteiz: Larunbatean, 18:30ean, gaztetxean. Bertso saioa Irati Anda, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Julio Soto bertsolariekin. Bertsolarien ostean, Txapelpunk eta Astalapo taldeak izango dira. Euskharan-ek antolatuta.

Arabako Bertsolari Txapelketaren aurkezpena

Langraiz Oka: Larunbatean, 11:00etan, gizarte etxean.

Bertso jaialdia

Legutio: Gaur, ostirala, 19:00etan, kultur etxean. Julio Soto, Jone Uria, Asier Rubio eta Igor Elortza bertsolariekin.

HITZALDIA

'Euskera erro eta gara' Bittor Kapanagaren liburuaren aurkezpena

Gasteiz: Asteazkenean, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean. Juan Martin Elexpuruk aurkeztuko du, Gontzal Mendibilek kantuan lagunduta.

'Euskara eta Kirola' Mikel Urrutikoetxea Eli Pinedo kirolariekin solasaldia

Okondo: Gaur, ostirala, 19:30ean, Señorío de Astobiza upategian. Solasaldiaren

ostean, bisitaldi gidatua upategian 21:00etan.

HAURRAK

'Sortu eta birziklatu' umeentzako lantegia.

Gasteiz: Larunbatean, 18:00etan, Judimendi gizarte etxean.

'Crikuren ibilalditxo' ikuskizuna Victor Garcia de la Torrerekin


Zigoitia: Larunbatean, 12:00etan, Zigoitia aretoan. Bi urtetik gorakoentzat.

BESTELAKOAK

Auzolana Errekaleorren. Bisitaldia auzoa ezagutzeko eta herri bazkaria

Gasteiz: Larunbatean, 09:00etatik aurrera, Errekaleor auzoan.

Euskal Jaia. Joaldunekin erromeria. Errekaleor Bizirik!



ALEA

Letrategia. Idazle gazteentzako lantegi praktikoa

Gasteiz: Asteazkenean, 18:00etatik

20:00etara, Gasteizko Alde Zaharreko Oihaneder Euskararen Etxean. Idazteko zaletasuna duten DBHko 4. mailako

eta batxilergoko ikasle gazteei zuzendua, Patxi Zubizarreta idazleak gidatua.

Gasteiz: Ostegunean, 20:00etan, Gaztetxean.

'Geurekin mendira' irteera. Kurtzebarri

Gasteiz: Igandean, 08:30ean, Mendizorrotzako aparkalekutik abiatuta. Egun osoko irteera izango da. Arduraduna: Begoña (945-266812 / 665 736 661)

'Etorkizunera begira' orientazio akademiko eta profesionalerako azoka.

Laudio: Gaur, ostirala, Laudio ikastolan, egunean zehar. DBH4 eta Batxilergoko ikasleentzat.

'Oxigenoa euskarari' egitasmoa. Mendi irteera

Laudio: Igandean, 08:00etatik 16:30era. Aiara-Larruazabal. Babio. Udaleko Euskara arloaren bitartez antolatutako egitasmo bat da. Gazteei zuzendutako aisialdi ekimen honen bidez euren euskararen erabileran eta ezagutzan eragin nahi dute. 12-16 urte bitarteko

gazteentzat. Mendiak eta Herriak mendi-gidarien elkarteak arduratzen da irteeretaz.

URTARRILA

16

URTARRILA

22

BESTE HITZORDU BATZUK

MUSIKA

Armentia abesbatza

Gasteiz: Gaur, ostirala, 20:15etan, Vital Kutxa aretoan.

Soviet Soviet

Gasteiz: Gaur, ostirala, 20:30ean, Ibu Hots aretoan.

Luar Na Lubre

Gasteiz: Gaur, 21:30ean Jimmy Jazz-en.

Sex Museum eta His Majesty The King

Gasteiz: Gaur, ostirala, 22:00etan, Hell Doradon.

Siniestro Total

Gasteiz: Larunbatean 21:00etan, Jimmy Jazz aretoan.

Anne Etchegoyen. 'Les Voix Basques'

Amurrio: Igandean, 20:00etan, Amurrio antzokian.

Joni Mitchell omenaldia. Jazz Uhinak

Gasteiz: Asteartean, 19:00etan, Jesus Guridi musika kontserbatorioan.

HITZALDIA

'Turkia', Eneko Etxebarrieta bidaizalearekin

Gasteiz: Gaur, ostirala, 17:30ean, Ignacio Aldekoan.

'Kreta', Eva Tobalina EHUKo historia irakaslearekin

Gasteiz: Asteazkenean, 19:30ean, Luis de Ajuria aretoan.

ERAKUSKETAK

'Lur azpitik-lur azaleratuz' . Ezkaban hildakoak gogoan

Gasteiz: Hilak 16 azkeneneko eguna, EHUKo pabilioian.

BESTELAKOAK

'Gasteiz, gure jatorrietara bidaia' bisitaldi gidatua

Gasteiz: Larunbatean, 11:00etan, Aihotz plazaatik abiatuta. Aurretik izena eman behar da turismo bulegoan.

'Nordic Walking' ikastaroa

Dulantzi: Larunbatean, 10:00etan, kiroldegian.

'A night at the Opera' Sam Wooden pelikula

Gasteiz: Asteazkenean, 19:30ean, Artiumen.



Zure enpresarentzako erakusleiho paregabea

 **ALEA** 
Irugarri zaiter

MILAKA IRAKURLE ARABA OSOAN

Publicitate en
ALEA

El mejor escaparate para tu negocio

Informazio gehiago
info@arabakoalea.info